

PRENTSARAKO OHARRA

18/11/09

## **Bukatu dira 2019ko Aurrekontuen Proiektuan Sail bakotxari esleitutako kontuen barri emoteko informazio saioak**

Bizkaiko Batzar Nagusiek gaur bukatu ditue 2019ko Aurrekontuen Proiektuan Bizkaiko Foru Aldundiko Sail bakotxari esleitutako kontuak zehazteko informazio saioak. Gaur Gizarte Ekintza eta Herri Administrazioarako eta Erakunde Harremanetarako Sailen txandea izan da.

Isabel Sánchez Robles Gizarte Ekintza Saileko Foru Diputatuak izan da datorren 2019ko ekitaldirako bere sailak izango dituan aurrekontuak aurkeztu dituan lehenengoa. Gizarte Ekintza Sailak 537,76 milioi euroko aurrekontua izango dau datorren urtean, Foru Aldundiko sailek izango daben kopuru osoaren %42,9a, hain zuzen be. Kopuru hori aurreko ekitaldikoa baino %8,73 handiagoa da.

Diputatuaren berbetan, aurrekontu horregaz “umeak babesteko dagozan gero eta behar handiagoei arreteta emoten deutsegu, adinekoei eta urritasuna daukien personei arreteta eskintzeko zentroen sarea finkatzen dogu, zaintzaileei laguntzeko neurrietan aurrera egiten dogu eta Lurraldean zidarrezko ekonomia sustatzeko estrategiari aurrekontua emoten deusagu”.

Gizarte Ekintzako diputatuak gizarte babeserako sarea bermatzeko konpromisoa eta horren zerbitzuen garapenean aurrera egitea azpimarratu ditu. Horretarako, 2019an, Aldundiak 4 milioi euro bideratuko ditu Zaintzaileen Estatutuan jasoten diran neurrien garapenera, eta milioi bat euro zidarrezko ekonomiaren sustapenera, martxan jarriko dan Nagusi Intelligence Center izenekoaren bitartez.

Gizarte arloko politiken barruan, Gizarte Ekintzak bere aurrekontuaren heren bat baino gehiago –220,48 milioi– adinekoengan inbertiduko dau. Urritasuna daukien personei emon beharreko arretaren arloan, aurrekontuen proiektuak 93.988.241 euroko gastua aurreikusten dau.

Beste esfortzu handi bat, mendekotasun prestazinoei eta diru-laguntzei jagokezan gastuak ordaintzera bideratuko da: 96 milioi euro. 2019. urteak barrikuntza bat eukiko dau, 2,86 milioi euroko zuzkidurea izango da elako PECEF izenekoaren –familia ingurunean emoten diran zainketetarako prestazinoa– onuradun diran eta mendekotasun egoeran dagozan personen zaintzaileentzako urtean 15 eguneko arnasaldia bultzatzeko.

Eta inbertsinoetan egingo dan laugarren esfortzu handia umeei emon beharreko arreta programara zuzenduko da, 56,83 milioi eurogaz.

Sánchez Roblesek bere sailaren urteko kudeaketea marketan daben beste gai batzuk be aitatu ditu, Balorazino eta Orientazino Zerbitzua (7,76 milioi euro) edo Tutoretzako Institutuaren finantziazinoa (2,78 milioi euro).

## HERRI ADMINISTRAZIOA ETA ERAKUNDE HARREMANAK

Herri Administrazioarako eta Erakunde Harremanetarako Sailari jagokonez, 62.112.967 euroko aurrekontua dauka, 2018an baino %10 gehiago. Zenbateko hori, batez be, herritarrei eta udalei zerbitzu gehiago eta hobeak eskintzeko erabiliko da, teknologia barrietan oinarrituta.

Aurreko ekitaldian ez bezela, 2019an aurrekontuek 30.000 euroko igoera eukiko dabe Bizkaiko Batzar Nagusiei zuzendutako partidan, datorren urtean izango diran foru hauteskundearen gastuei aurre egin ahal izateko.

Aldundiak 18,5 milioi eurotan (+%5,76) zenbatu dau foru administrazioa modernizetako esfortzua, BAT (Bizkaiko Azpiegitura Teknologia) sistemaren garapena barruan hartuz. Horren barruan dagoz, beste batzuen artean, sarreraren kudeatzailea, kudeatzaile dokumentala, tramitazioaren motorra eta artxibategi elektronikoa.

Diputatu andreak, larrialdi zerbitzuen instalazioak modernizeteak daukan lehentasuna be azpimarratu dau. Holan, 2019an, Zallako su-hiltzaileen parkea eta Arratzuko parkea eregiteko lanak jarraituko da (1,2 milioi euro).

Bengoetxeak zuzentzen dauen sailaren parte bat Aldundiaren parke mobikorra barriztetera zuzenduko da. 711.480 euro inbertiduko dira autoeskala ibilgailu barria erosteko; eta beste 160.000 euro basorako ibilgailu bi egokitzera bideratuko dira.

Horrez gain, Aldundiak Bizkaiko udalerriei euskarria emoten jarraituko dau. Horretarako, 4.535.000 euro zuzenduko dira Biscaytik Fundazinora. Horrez gain, udalerritik txikitian azpiegituretarako dagozan diru-laguntzetara zuzendutakoari “eutsi egingo jako” (milioi bi), 2019an udalerrien finantza egoerak hobera egingo dauela aurreikusten dan arren.

Bengoetxeak Aldundi osoko I. kapituluak (beharginak) be aitatu dau. Horren soldata masak %7,2 egingo dau gora, 218 milioi eurora heldu arte.

Talde Mistoak egindako galderari erantzunez, aurretik egindako agerraldian, diputatu andreak jakinarazo dau daborduko Herri Administrazioarako eta Erakunde Harremanetarako Sailaren 2018ko aurrekontuaren %61,7a dagola beteta.

## ZUZENKETA-ESKEAK AURKEZTEKO EPEA

Aurrekontuen Proiektuaren ganeko informazio saioak amaitu eta gero, Bizkaiko Batzarretako Mahaiak zuzenketa-eskeak aurkezteko epealdia ezarriko dau datorren astetik aurrera (15 egun). Horreek aztertu eta gero, osoko lehenengo saioa deituko da Gernikan, osotasunerako aurkezten diran zuzenketa-eskeak aztertzeko. Osoko horren ostean, eta holangorik egoten bada, zuzenketa-eske parzialak batzordean eztabaidatuko dira. Eta Bizkaiko kontuen batzarretako izapideak, seguruenez, abenduaren bukaeran amaituko dira, Ekonomia eta Ogasuneko Batzordetik igaro ostean geratzen diran zuzenketa-eskeak aztertuko dituan beste osoko batean.

NOTA DE PRENSA

09/11/18

## **Finalizadas las sesiones para informar de las cuentas asignadas a cada Departamento en el Proyecto de Presupuestos de 2018**

Las Juntas Generales de Bizkaia han finalizado hoy las sesiones para informar de las cuentas asignadas en el Proyecto de Presupuestos de 2019 a cada Departamento de la Diputación Foral de Bizkaia. Hoy ha sido el turno de las responsables de Acción Social, y Administraciones Públicas y Relaciones Institucionales.

La Diputada Foral de Acción Social, Isabel Sánchez Robles, ha sido la primera en presentar los presupuestos de su departamento para el próximo ejercicio 2019. El Departamento de Acción Social contará el año próximo con un presupuesto que asciende a 537,76 millones de euros, una cuantía que representa un 42,9% del presupuesto disponible departamental de la Diputación Foral. Esta cifra supone un aumento del 8,73% respecto al ejercicio anterior.

Un presupuesto con el que, en palabras de la diputada, “atendemos a la necesidades crecientes en materia de protección a la infancia, consolidamos la red de centros de atención a las personas mayores y personas con discapacidad, avanzamos en las medidas de apoyo a las personas cuidadoras y dotamos presupuestariamente la estrategia para promover la economía plateada del Territorio”.

La diputada de Acción Social ha hecho hincapié en el compromiso de garantizar la red de protección social y avanzar en el desarrollo de sus servicios. Para ello, en 2019, la Diputación destinará 4 millones de euros al desarrollo de las medidas recogidas en el Estatuto de Personas Cuidadoras, y 1 millón de euros a la promoción de la economía plateada a través del futuro Nagusi Intelligence Center.

Dentro de sus políticas sociales, Acción Social invertirá más de un tercio de su disponible – 220,48 millones- en las personas mayores. En el ámbito de la atención a las personas con discapacidad, el proyecto presupuestario prevé un gasto de 93.988.241 euros.

Otro de los grandes esfuerzos recaerá en cubrir los gastos en cuanto a prestaciones y subvenciones a la dependencia: 96 millones de euros. El 2019 traerá como novedad la inclusión de una dotación de 2,86 millones de euros para el impulso del respiro de 15 días al año para las personas cuidadoras de personas en situación de dependencia que sean beneficiarias de la PECEF – prestación para cuidados en el entorno familiar- .

Y el cuarto gran esfuerzo inversor irá destinado a costear el programa de atención a la infancia con 56,83 millones de euros.

Sánchez Robles se ha referido a otras cuestiones que marcan la gestión anual de su departamento como el Servicio de Valoración y Orientación (7,76 millones de euros) o la financiación del Instituto Tutelar (2,78 millones de euros).

## ADMINISTRACIÓN PÚBLICA Y RELACIONES INSTITUCIONALES

Por su parte, el departamento de Administración Pública y Relaciones Institucionales contará con un presupuesto de 62.112.967 euros, un 10% más que en 2018. La cuantía servirá principalmente para ofrecer más y mejores servicios a la ciudadanía y a los ayuntamientos, teniendo como base las nuevas tecnologías.

A diferencia del ejercicio pasado, en 2019 los presupuestos contarán con un incremento de 30.000 euros en la partida destinada a las Juntas Generales Bizkaia para hacer frente a los gastos de las elecciones forales que tendrán lugar el año que viene.

La Diputación ha cifrado en 18,5 millones de euros (+5,76%) el esfuerzo por modernizar la administración foral, contemplando el desarrollo del sistema BAT (Bizkaiko Azpiegitura Teknologia) que incluye, entre otras cosas, la sede electrónica, el gestor de entradas, el gestor documental, el motor de tramitación y el archivo electrónico.

La diputada ha hecho hincapié también en la prioridad de modernizar las instalaciones de los servicios de emergencia. Así, en 2019, se dará continuidad a las obras de construcción del parque de bomberos de Zalla y del parque de Arratzu (1,2 millones de euros).

El área que dirige Bengoetxea dirigirá también parte de su presupuesto a renovar el parque móvil de la Diputación. Invertirá 711.480 euros en adquirir un nuevo vehículo autoescala; y otros 160.000 euros se dirigirán a adecuar dos vehículos forestales.

Asimismo, la Diputación seguirá dando soporte a los municipios de Bizkaia Para ello se dotará con 4.535.000 euros a la Fundación Biscaytik. Además, “se mantendrá” la destinada a subvenciones para infraestructuras en las localidades pequeñas (2 millones), pese a que se prevé que la situación financiera de los municipios "mejore" en 2019.

Bengoetxea se ha referido también al capítulo I de toda la Diputación (Personal) cuya masa salarial subirá un 7,2% hasta situarse en 218 millones de euros.

A pregunta del Grupo Mixto, y en una comparecencia anterior, la diputada ha informado que se ha ejecutado ya el 61,7% del presupuesto de 2018 incluido en el departamento de Administración Públicas y Relaciones Institucionales.

### PLAZO DE ENMIENDAS

Concluidas las sesiones informativas del Proyecto de Presupuestos, la Mesa del parlamento vizcaíno establecerá a partir de la semana próxima el periodo de presentación de enmiendas (15 días). Tras su análisis se convocará una primera sesión plenaria en Gernika para debatir las enmiendas a la totalidad. Después de este pleno, y llegado el caso, se debatirían las enmiendas parciales en comisión. Y el trámite parlamentario de las cuentas de Bizkaia finalizaría, previsiblemente, a finales de diciembre con un nuevo pleno, que analice las enmiendas parciales que queden tras su paso por la Comisión de Economía y Hacienda.